

# Eta etorkizunean zer?

*Ikasbiletik hartua eta IKAn moldatua*

*Jarduera honetan etorkizunaren inguruko gogoeta egingo dugu. Etorkizuneko gizakiak deskribatzen ahaleginduko gara eta etorkizunari buruzko aurreikuspenak egingo ditugu.*



## 1- Herentzia genetikoa

*Bideoa ikusi ondoren, galdera hauei erantzungo diezu taldean:*

- Herentzia genetikoa dela-eta zuk ere, Anttonek bezala, kezkak izan dituzu?
- Zer ez zenioke zeure seme-alaba bati transmititu nahiko?
- Etorkizuneko gizakiek gure kezka berdina izango al dituzte gorputzeko itxurari buruz?
- Nolakoa izango da hemendik 100 urtera gizakiaren erretratu-robot? Saiatu aurreikusten, ahoz, nolakoak izango diren etorkizunean elementu hauek:
  - fisikoak: ilea, begiak, altuera, gorpuzkera...
  - nortasunekoak: isila, berritsua, irekia...

## 2- Gero eta altuagoak



*Orain, gure ondorengoen itxuraz ikertzaileek zer dioten entzungo duzu. Zure intuizioa eta ikertzaileek diotena bat datozen jakiteko aukera izango duzu. Entzun, bada, Euskadi Irratiko Salako Leihoa irratsaioan X. Mendigurenek dioena.*

Elkarrizketan entzun daitekeen bezala, konparazioak denboran zehar egiteko, honako esaldiak erabiltzen ditugu:

- **Gero eta urte gehiago** bizi gara.
- Langileek **gero eta diru gutxiago** irabazten dute.
- Etxebizitzak **gero eta garestiagoak** dira.
- **Gero eta gehiagotan** gertatzen dira horrelako gauzak.

*Erreparatu orain esaldi hauei (batzuk entzun duzun elkarrizketatik atera ditugu), eta osatu aukera egokia hautatuz.*

**gero eta altuagoak / gero eta gutxiago / gero eta ordu gutxiago /  
gero eta jende gutxiagok / gero eta etxe gehiagotan**

- Guk gure hurbilean ezagutzen ditugun gazteak ..... dira.
- Gizakiok ..... erabiltzen dugu gorputza.
- Gaur egun ..... egiten dugu lo.
- ..... dago ordenagailua.
- Ikerketek diotenez, .....erretzen du tabako beltza.

Elkarrizketan, Xabier Mendigurenek beste batzuen ideiak aipatu dituenean, honelako esaldiak egin ditu:

- **Hori dio, behintzat**, Newsweek aldizkariak.
- **Baina, itxura denez**, gizakia ez da handitzen ari.
- **Orduan, badirudi** buruaren muga bat gertatzen ari dela.
- **Beren iritziz**, arrazoia hori da.

*Aurreko esaldiei jarraituz, beheko esaldiak berridatziko dituzu.*

- Itxura denez, Egiptoko gizonezkoek koloretako ileordeak janzen zituzten. (omen)

- Kleopatrak bere burua edertzeko astemearen esnea erabiltzen zuen, itxura denez. (dirudienez)

- Gure amonek, haurtxoen ile horiari eusteko, limoia botatzen zieten; batzuek hala diote behintzat. (badirudi)

- Erromatarrek, ordea, lixibarekin garbitzen omen zuten ilea. (nonbait)

- Ekialdeko emakumeek, aurpegia zuritzeko, arroz-hautsa erabiltzen zutela dirudi. (antza)


- Esaten dutenez, Coco Chanel-ek jarri zuen modan beltzaran egotea XX. mendeko hogeiko hamarkadan. (diote)

- Ikusleek diotenez, begitarte beltzaranak zikin-itxura hartzen du telebistan. (iritziz)

Unea iritsi da idatzizko deskribapen ahalik eta zehatzena egiteko. Nolakoa izango da hemendik 100 urtera gizakiaren erretratu-robot? Saiatu idatziz deskribatzen elementu hauek:

- fisikoak: ilea, begiak, altuera, gorpuzkera...
- nortasunekoak: isila, berritsua, irekia...

Hizkuntzari erreparatuz gero, aditza geroaldian erabil dezakezu (*begi txikiak izango ditu...*) iritzia eta usteak esateko, honelakoak: *baliteke, seguru asko, nire ustez...*



### 3- Irauteko diseinatua

Orain, 1. bideoan, iragarki bat ikusiko duzu. Zeren iragarkia da? Hauetako zerena izan liteke?:

- aseguru batena
- telebista batena
- preserbatibo batena
- altzariena
- banketxe batena
- lurrin batena

Komentatu taldean erantzunak... Ikusi bigarren bideoa eta konprobatu.



### 4- Zer nahiko zenuke betiko irautea?

Hemen dituzun produktuetatik, zer nahiko zenuke denbora asko irautea?, eta gutxi irautea? Hona produktuak: autoak, etxeak, arropa, ordenagailuak, mugikorrak....

Binaka jarrita, elkarri adieraziko diozue nola sailkatu dituzuen gauzak. Elkarrizketarako eredu batzuk eskaini dizkizugu, nahi izanez gero, erabil ditzazuen. Hain zuzen ere, Nati eta Xanti ikasleen arteko elkarrizketa-zatiak eskaintzen dizkizugu.

Nati: Zuk, beraz, etxeak betiko irautea **nahiko zenuke?**

Xanti: Ahal badut, bai. Gustura nago bizi naizen etxean.

Nati: Niri, ordea, 10 urtez behin edo, etxea aldatzea **gustatuko litzaidake.**

Xanti: Bai? **Ez al zenuke nahiko,** zu hil eta gero, zure seme-alabek etxe berean bizi zitezen?

Xanti: Autoa bai. Autoa 3 urtez behin **aldatuko nuke.**

Nati: Nik ez. Alferrikako gastua da. Zenbat eta urte gehiago iraun, hobe.

Xanti: Ez dizut sinisten. Ahal izanez gero, denok **nahiko genuke** azken modeloa erosi.

*Ikusiko duzunez, desioak eta horrelakoak adierazteko, aditz hipotetikoak erabiltzen ditugu: nahiko nuke, gustatuko litzaidake, ez nuke nahi.....*

*Saiatu zeu ere aditz-mota horiek erabiltzen.*

## 5- Txikitako kontuak komentatzen

*Launaka jazarriko zarete eta irudietako pertsonaiek esaten dutena komentatuko duzue. Zuek ere horrelakorik entzun eta pentsatzen zenuten?*



## 6- Zelan ikusten duzu zeure burua hemendik 20 urtera?

*Bideoan ageri den Anttonek zertaz hitz egin du bere etorkizuna irudikatzean? Markatu aipatu dituen gaiak. Zertaz hitz egin du Anttonek?*

- Diruaz
- Gorputzeko itxuraz
- Lanaz
- Aisialdiaz
- Maitasunaz
- Elikaduraz
- Osasunaz



*Eta zuk pentsatu al duzu zeure etorkizuneko bizimoduaz? Tertulia bat egingo duzue talde txikitari, lehenago atera diren alderdiak komentatzeko: osasuna, aisialdia, maitasuna.... Hitz egitean, erreparatu zer esapide erabili dituzten bideoeko elkarrizketan.*

## 7- Aurkikuntza

Orain, eta esklusiban, berrehun urte barru argitaratuko den *Galaxy-News* egunkari digitaleko artikulutxoak irakurtzeko abagunea izango duzu.

### Gure arbasoen bizimodu bitxia

#### *Bilbopolis*

Gasteiz eta Baiona auzoak lotzeko egiten ari diren lur azpiko trenpistaren obretan balio handiko aurkikuntza egin dute bertako langileek. Plastikoko primario baten barruan orain dela berrehun urteko bost objektu bitxi eta sinple zeuden gordeta. Unibertsitateko ikertzaileen ustez, aurkikuntza honek dezente argituko du garai hartako euskaldunen bizimodua, halaxe esaten baitzioten euren buruari gure arbasoek. Izan ere, gizarte haren berri nahiko ondo badakigu ere, badira oraindik jakin-mina bizten duten hainbat gai, esaterako, etxe barruko zein objektu arrunt ziren ezinbestekoak gure aurrekoentzat. Hartara, ikertzaileek diotenez, aurki osatuko dute Museo Birtualak XX mendeari eskainitako atala.

*Berrehun urte barru azalduko den poltsa hori zuek bete beharko bazenu, zein 4 gauza sartuko zenituzke? Ondo pentsatu zergatik aukeratuko zenituzkeen. Hirunaka jarri, eta zuen artean 12 gauzetatik 4 aukeratuko dituzue etorkizuneko gizakiek gu nola bizi garen jakiteko.*

*Jarraian, aukeratutako lau gauza horiei buruz (taldean aukeratua ala zuk aukeratua) ohar bat idatziko duzu, gure ondorengoek gauza horiek zertarako eta nola erabiltzen ditugun uler dezaten: zer-zertarako-zerez egina diren.*

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

# ERANTZUNAK

## 2- Gero eta altuagoak

- Guk gure hurbilean ezagutzen ditugun gazteak (**gero eta altuagoak**) dira.
  - Gizakiok (**gero eta gutxiago**) erabiltzen dugu gorputza.
  - Gaur egun (**gero eta ordu gutxiago**) egiten dugu lo.
  - (**gero eta etxe gehiagotan**) dago ordenagailua.
  - Ikerketek diotenez, (**gero eta jende gutxiagok**) erretzen du tabako beltza.
- 
- Itxura denez, Egiptoko gizonezkoek koloretako ileordeak janzten zituzten. (omen)  
**(Egiptoko gizonezkoek koloretako ileordeak janzten omen zituzten.)**
  - Kleopatrak bere burua edertzeko astemearen esnea erabiltzen zuen, itxura denez.  
(dirudienez)  
**(Dirudienez, Kleopatrak bere burua edertzeko astemearen esnea erabiltzen zuen.)**
  - Gure amonek, haurtxoen ile horiari eusteko, limoia botatzen zieten; batzuek hala diote behintzat. (badirudi)  
**(Badirudi gure amonek haurtxoen ile horiari eusteko limoia botatzen zietela.)**
  - Erromatarrek, ordea, lixibarekin garbitzen omen zuten ilea. (nonbait)  
**(Erromatarrek, ordea, nonbait lixibarekin garbitzen zuten ilea.)**
  - Ekialdeko emakumeek, aurpegia zuritzeko, arroz-hautsa erabiltzen zutela dirudi. (antza)  
**(Antza, Ekialdeko emakumeek, aurpegia zuritzeko, arroz-hautsa erabiltzen zuten.)**
  - Esaten dutenez, Coco Chanel-ek jarri zuen modan beltzaran egotea XX. mendeko hogeiko hamarkadan. (diote)  
**(Diote Coco Chanel-ek jarri zuela modan beltzaran egotea XX. mendeko hogeiko hamarkadan.)**
  - Ikusleek diotenez, begitarte beltzaranak zikin-itxura hartzen du telebistan. (iritziz)  
**(Ikusleen iritziz, begitarte beltzaranak zikin-itxura hartzen du telebistan.)**

## 6- Zelan ikusten duzu zeure burua hemendik 20 urtera?

Zertaz hitz egin du Anttonek? **(Maitasunaz, Lanaz, Gorputzeko itxuraz, Aisialdiaz)**